

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pilar Azkarretazabal Bengoa

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1924-2018)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

ARE-041

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Data:** 2008-12-22
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Tren zaharrean ibiltzen zen

- **Erref:** ARE-041/002
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:00:46. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Lurrun-makinadun trena, Gasteizera edo Maltzagara joaten zena, ezagutu zuen Pilarrek. Bergarako Mekolalden, Zumarragarako tren-aldaketa egitea zegoen. Urtean behin Debara joaten ziren trenez.</p>

Transkripzioa

-Trena noiz kendu zebe akordatzeko zara?

-Hoixe ez noiz kendu auen, Don Anjel euela zan da.

-Zu jaixo ziñanian trena zeuan hemen, ez?

-Trena bai, bai, trena auen. Trena hori, horrena, ikatzakin-da eztakitzu eitten auena? Horretxek, baiña trena baauen.

Semea: Elektrikua ez?

-Gero ifini auen.

-Eta noraiño faten zan hori trena?

-Betik Bittorixara, guk eukitten gauen Bittorixa ta Malzagara. Hor ibiltten zan trenoi. Gero Mekolalden be egoten zan, Mekolalden be trasbordua egoten zan.

-Hori nun dao?

-Mekolalde?

Semea: Bergako auzo bat Mekolalde. Bergatik pasetan dozu da Plaentxiara aillegau baiño lenau han dago auzo bat, Mekolalden itten zan trasbordua, da handik joaten zan Zumarragara. Handik hartu, Antzuola igo eta Zumarragara.

-Naparrua alderutz ero emuten auen, ha Mekolalde zan.

Semea:Trasbordua euzen bi lekutan, Mekolalden eta Maltzagan.

-Eta erabiltzen zenduan trena?

-Guk trena bai. Gu faten gitzen Donostiara. Donostiara ez, Donostiara ya hamazazpi-hemezortzi urte arte enintzen joan. Baiña horra Bittorixara bai. Bittorixan be tio geukun da orduan tiua nun eukun ba hara faten gintzen.

-Askotan?

-Asko bez baiña..., oye.

-Karua zan?

-Karua ba, ez auen orduen dirurik eta! Han bai; oin urtero-urtero Debara bai. Da amak erueten gauen. Amak eta bezina batzuk eta holan.

2. Debara trenez

- **Erref:** ARE-041/003
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:06:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Txartel-zulatzaila etortzen zenerako ume batzuk aulki azpitan gordetzen ziren, txartela ez ordaintzeko. Arrasateraino oinez joaten ziren Debarako trena hartzeko. Geltokietako langile guztiak erdaldunak ziren.

Transkripzioa

-Baiña interbentoria etorten zanian ikusten oskun agua, agora begiraketan oskue.

-Zela?

-O zazpi urte gaukoun, pagau bihar gauen o ez gauen pagau bihar. Interbentoria etorten zanian egoten gintzen agua zerraut.

-Eta zegaittik ahora begira?

-Abua zerraut ba eztaixen begiratu. Amak eta etzauen hartu billeteik!

Semea: Lenau zazpi urte (arte) ez euen pagetan billeteik.

-Ez, ez auen pagetan.

-Eta zeozer esaten otsuen?

-Ba guk. Amak eta: "Ez zabaldu agua!". Eta ez gauen zabalketan agua interbentoria etorten zanian. Eta askotan ba zela gintzen asko, famelixa haundixa gintzen gu, eta bezinak eta danak, faten gintzen Mondraueraiño oiñez trena hartzeko Debarako.

-Zegaittik Mondrauera?

-Ba eztakit ze auen. Orduan Debara itxuria hemendik ez euen erungo ero, handik erueten gauen. Mondrauera faten gintzen Debara fateko. Eta nire aitzia ta beste beziñak eta, klaro, asko gitzen, eta ze itten auen, banku azpixin gorde, eta ama, interbentoria etorten zanien (...), ama ta holan tapauta, holan gona haundixaz da; ta harek: "Ama, urtengot!" eta "Ez, ezta pasau interbentoria ta". Orduen pasetan zanien (...) Eta egoten gintzen ba Debara fateko desietan, pentsetan gauen etxiak pe dziii! ta joan doiazela trenien goiazenien, ganaua be bai.

-Zenbat tardatzen zeban Debara joateko?

-Debarako? Ordu bi ero, eztakit nik zenbat ordu, ordu terdi bat ero eukiko euen debara joateko.

Semea: Eta gero Maltzagan geldittu ein bihar zitzen.

-Eta Maltzagan beste tren bat hartu?

Semea: Tren bat hartu.

-Guretako estaziñue izeten zan, eukitten daue ba gaur mutillek...

Semea: Jolas itteko.

-Jolas itteko ta lekua. Gu betik estaziñuan. Baiña estaziñuan betik egoten zien erdeldunak. Orduen billete hartzeko erderaz esaten zauen. Bai. Jefia hemengo ingurukua bat ezautu gauen, egon zan apur baten Gatzakua. Gatzako bat, horko hotela dauke ba... Ha egon zan Gatzako bat. Baina bestela danak erdeldunak zien. Mozo de estación, bestiok hori...

Semea: Arabarrak eta asko.

-Arabarrak baiña euskeraz ez zakixienak.

-Orduan trena hartzeko erderaz.

-Trena hartzeko ba klaro ba, aitta ero baten bat juan da "un billete" ero "dos billetes" ero; da hori esaten gauen, bestela ez auen.

3. Botikako txakurra trenean dohainik

- **Erref:** ARE-041/004
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:06:03. **Bukatu:** 00:09:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Umeak Debara joaten ziren egunean, nagusiak Kurtzebarriko jaira joaten ziren. Botikako txakurra lehenengo Maltzagara joaten zen, handik Gasteizera, eta gauerako etxeratzen zen dena trenean sartuta. Autobusa baino merkeagoa zen trena.

Transkripzioa

-Eta Debara zenbat urtekin joaten ziñen?

-Debara? Bost ero xei urte.

-Umetan.

-Hemen dau erretratua. Holaxe faten gintzen baiña faten gintzen hiru. Ama ta zien hiru lagunak. (Argazkiari begiratuz) Pentsaizu ze ederrak getzen, e! Semea: Hau da honen ama, nere amandria, eta hau da bera, neskatilla bat.

Hau da. Zenbat urte eukiko auen? Ba zazpi bat o, zortzi.

-Ze guapa.

-Bai. Hemen daukou kuadrillia. Ez gintzen asko. Zazpi seme-alaba daukot neuk pe, neuk pe zazpi daukot. Eta holaxe, Deban oso, Debara erueten gauen. Esaten euen amak: "Bueno, gura dauenak Kurtzabarrira eta eztauenak gura -Kurtzabarri Eguna hor mendixen, orduan fiestia itten zan da nausixek faten zien hara eta gu txikixok amakin horra-. Baiña agua ez gauen zabalketan, ez auen hartzen dirua, dirurik ez auen da, eztakitzu. "Ez erakutsi, ague zerrauta". Nausixak ez, ia nausitxuauak agua zabalik, baiña guk ez.

Semea: Biletia pagau bihar izeten zan. Ez pagete arren ba...

-Eta egon zan hemen txakur bat, botikarixuen txakur bat, beti-beti-beti sartzen zan trenien eta faten zan Malazaraiño. Maltzagatik buelta eitten auen da gero igual batzutan Bitorixaraiño, eta gabien etortzen zan hona etxera.

-Txakur bat?

-Txakurra. Eta egun baten gure ama eta beste nire beste aman lagun bat joan zien Bergara eta Bergan sartu zien trenien, eta tas!, txakurrak ezautu auen; klaro, beziñuena zan, Botikakua, onduen bizi gintzen da. Ra!, eta interbentoria. "Ene! Zuen txakurra da hau?" "Ez, ez da guria, botikakua da". "Eske..." Hasi ei jaken hasarreka, egun guztie trenian dabillega. Holaxe ibiltten zan.

-Bakarrik ibiltzen zan?

-Bera bakarrik, atzera eta aurrera. Guk esaten gauen, gero gure ama ta etorri zien. "E, zelako argixa, zelako hori dan, e; pagau barik biletia ibilli eitten da atzera ta aurrera".

-Jabiak bazekixen?

-Jabiak gerora. Jefiek eta esaten otsienien ba ya txakur horri ba hori iñ otsien, baiña ibiltzen zan txakurra atzera ta aurrera.

-Pagau barik.

-Trena politta zan ha gure denporakua. Zegatik Mondrauera be danok trenien, zegatik orduan autobusa karuaua zan.

Semea: Autobusa egon bez.

-Autobusa, Eibar-Vitoria pasetan zan goixian da gero gabien be bai. Baiña trenien horra.

4. Trenaren oroitzapen onak

- **Erref:** ARE-041/005
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:12:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Gazteek txartela ez ordaintzearen asmatzen zituztenak azaltzen digu. Pena hartu zuen Pilarrek trena kendu zutenean. Ezkondu zen egunean sartu zen lehendabiziko aldiz lehen klasean.</p>

Transkripzioa

-Ta gaztiak biletia-kin-ta eitten utsen interbentoriai erakutsi biletia, ez dakitzu /eztakitzu/? Interbentoria topetan kuadrillia, gazte kuadrillia Mondrauera [joan bihar eta)], ta batek atara biletia; gero pasau beste leku batera ta. Gero bestiak be bai ta. Interbentoriak honek danok jaukiek

billetia. Holaxe, billete bategaz Mondrauera.

-Semea: Batek kuadrillan batek erosten auen, batek bakarrik billetia. Eta harek erosi auenak sartzen zan trenera, pika-pikia euen lekura. Pika-pikia etorten zanian kuadrillara, harek billetia euenak trote, ra!!!, takarraran. Ze eitten auen? Pasau bagoi batetik bestera ero holan, eta bestiorrek ikusten auenian, pika-pikia haren atzian. Ta joaten zan haren atzien eta harrapetan auenien, erukusten otson billetia, ta ya ordurako Mondrauera aillegauta.

-Nik trenai, bueno, nik pozik... Trena kendu auenian penia, penia hartu nauen, tren(i)a kendu auenien.

-Noiz kendu zebeñ?

-Hori?

-Gutxi gorabehera?

-Semea: Setenta?

-Don Angel noizkua zan?

-Semea: sesenta y tantos.

-Orduan zu ya nagusixa ziñen?

-Ni bai, bai.

-Ni be trenian ibilitta nau. Neu be denpora askuan ibilitta nau.

-Orduan gaztetan trenian ibiltzen ziñen?

-Baiña Mondrauera ta bai, baiña askotan Mondrauera be oiñez. Ze ez auen dirurik eta. Aber, pagau in bihar zan billetia ta.

-Hemendik zenbat tardatzen da?

-Semea: Hemendik? Ordu erdi bat edo.

-Bestela gaiñera Maltzagan ibiltten gintzen trastornauta. Bilbokua zan bat eta bestie zan Donostiakua ta. Ta gehixenetan Donostiakua hartu bihar, ta hara ta bestera ta. Umiok han ibiltzen gintzen.

-Gaztetan lagunekin be ibiltzen ziñen?

-Baitta horra.

-Eibarrera be bai?

-Eibarrera beti trenien. Eibarrera joaten gintzen lagunekin ez, aitzak. Eibarrera. Eta pozixao! Egoten gintzen Eibarren igual bost, hamabost egun ta, hillebete ta eitten gauen. Eta eurak be bai hemen eta gu be bai eurakin.

-Eta komodua zan trena?

-Pozik gaiñera. Guretako bai. Eta primeria zelako ederra! Elegantia. Puntillakin ta holan ifinita ta. Trenak primeria eukon, bat. Gu primeran ez gintzen sartzen; ezkondu nintzenien sartu nintzen Vittorixara joateko. Baiña bestela oso elegantia. Primeran gutxi egoten zien, joaten zien pues aberatsenak. Gu bestien. Eta gero beste bat merkantzia auen. Eta merkantziak eukon, eukitten auen bagoi bat.

-Jendiandako?

-Bueno, Bergara. Baiña merkantziak gutxi pasetan zien. Eztakit ba zenbat pasauko zien merkantziak. Gutxi. Baiña harek eukitten auen bagoi bat, bagoi bat joaten zan han. Baiña bagoien joaten gintzen, baten bategaz joan; ni joan nintzen behin bagoi merkantzian, joan nintzen Bergara aittakin, Bergako fiestak zien ta. Hara danak burla eitten otsen aittai: "Merkantzien etorri leike, merkantzien?", eta ez dakit /eztakit/ zer, holaxe.

-Semea: Bagoi bat ipintten otsien.

5. Trenez inguruko jai guztietara

- **Erref:** ARE-041/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:12:51. **Bukatu:** 00:15:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Bergarako jaietarako joan-etorria trenez egiten zuten. Eskoriatza, Arrasate eta Eibarko jaietara ere joaten zen. Espartinak apurtu arte egiten zuten jaietan dantza.

Transkripzioa

-Bergarara jaixetan?

-Jaixetan Bergara be joaten gintzen, da trenian joan da trenian etorri. Hamabixetan ero egoten zan trena ia hona etorteko. Baiña estaziñuen zainketan hantxe noiz etorren, zegatik hanka ein boskun aber zer. Gaur igual eztiez etorten gaztiak etxera, baiña orduen derrior joan bihar zintzen. Gaiñera Bergara ni behiñ ero joan naz bakarrik. Enostien itxitten.

-Ez zotsuen uzten etxian joaten, ala?

-Etxien, gaztiek gintzela ta Bergaraiño? Orduan urrin zan. Gaur Nueva Yorrera letxe Bergarako fiestetara ta joatie ta zan. Ze ez auen da.

-Jaixak hemen herrixan.

-Hemen herrixan, Eskoritzakuak bai, Eskoritzakua eta Mondrauekua bai, horreik bai.

Bergara ia urrintxo. Eta Eibarrera asko, Eibarrerarako fiesta guztietarako joaten gintzen. Baiña tiuak gauken.

-Tien etxera.

-Haretxen etxera. Oso ederto. Eibarren, bueno!, lagun haundixak euki gauen Eibarren.

-Eta hemen Aretxabaletan jaixetan zer egoten zan?

-Hemen asko gauzak. Ene! Herrikuek eitten euen jaixa, baiña jaixak onak. Osp ederto egoten zien, eitten euen jaixak pues, bueno!, danok goxien goxetik. Oingo moruen erretirau ez. Hamabixak inguruen ero bien, baiña bestela hasi dantzan eta zapatak apurtu... Zapatak pez, alpargatak. Holakotxe bizarraz urten arte hantxe dantzan. Oiñ ezta eitten dantzaik pe kalia be.

-Eta musikuak egoten ziran?

-Musikuak Mondrauekuak.

Semea: Gramolia be bai.

-Oso ederto. Filarmonikia batek jo ta bestiak hori ta horreik egoten zien, bueno! Egun guztia musikiaz eta dantziaz.

6. Otalora Zelaiko jaia

- **Erref:** ARE-041/007
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:15:01. **Bukatu:** 00:18:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Soineko berria jantzita eta afari-meriendarekin joaten ziren Otalora Zelaiko jaira.</p>

Transkripzioa

-Entzun dot zeozer Otalazelai jaia.

-Otalazelai, bai, bai, hori oso inportantia zan guretako.
 Semea: Badakitzu nun dauen Otalazelai?
 -Eztakit.
 Semea: Otalazelai pantanora faten zanian, han zelan daukon Kaja Laboralek edifizio bat eta.
 -Otala.
 Semea: Ez zara egon sekula hor pantanuan?
 -Politta da.
 Semea: Han dauko hori, hago zelai bat hoixe zan Otalazelai. Han dau Otalako jefia. Otala zan Atxabaletako jauntxo bat.
 -Hor zer egoten zan?
 -Hor egoten zan, ba joaten gintzen afai-merixendiaz. Amak, anai-arreba danok, aitta be bai.
 -Ze eruaten zan, zapata-kajan ero?
 -Bai. Hori zapata-kajia eukenak "artículo de lujo" zan. Hori como un frigorífico zan.
 -Zelan eruaten zan ba?
 -Ba hori, kazuela baten. Kazuelan sartu ta zakuren baten ero nunbaiten. Oingo moruen plastikoik pe ez auen, e. Ezebez orduen. Baiña ederto pasau bai, hango filarmonikia ta. Eta gero afai ederra, afai-merixendia itten gauen guk. Bazkaixaz gutxi joaten zien. Aiuntamentua orduan egoten zan. Gero gu afai merixendiaz danok hantxe. Aittan erretratua hor daukotzu, Otalazelain?
 Semea: Eztakitt.
 -Ardau trague eitten zelan dauen. Eta oso ederto egoten gintzen. Otalazelaiko fiestia ederra. Eta hara joateko batia. Batia deiketan jakon orduan, soiñekua, estreñetan gauen hara joateko.
 -Soiñeko barrixa?
 -Soiñeko barrixa, batia (...) ha hori eitten zan.
 -Eta gero han zer zeuan, musikia?
 -Filarmonikia. Hantxe. Gora ta bera dantzan hantxe ibiltten gintzen ederto.
 -Hamabost urtekin? Hemezortzi?
 -Bueno! Gu txiki-txikittatik joaten gintzen Otalazelaira. Aittaz da amaz hara.
 -Oiñez, ezta?
 -Oiñez! Orduen ez euen! Autoimoill bat ero pasetan bazan Atxabaletarra. (...) Beste bat dau ederto danokin kuadrillan dauena. Eztauketzu hor? Lenaukuen bat etorri jakun erretratue gure euela ta.
 (...)
 -Eztakizu ze ederto pasetan zan. Neuk pe daukot bat Eibarkuaz, Merzedesegaz hortxe dauz. Ekarri hona. Eibarkuak pe beti. Eta gu bizi gintzen han...

7. Kale-baserrian jaioa

- **Erref:** ARE-041/008
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:18:27. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Kale-baserri batean jaiotakoa da Pilar. Bera umea zenean, arropak garbitzera erredera joaten ziren. Aretxabaletan ez omen zegoen garbitokirik.

Transkripzioa

- Gu bizi gintzen han, korroria (?), etxe, etxe-basarrixa zan, etxia, eta kalekalian gaukun, ezta, baiña trena pasetan zan...
- Kale-baserri baten bizi ziñen zu?
- Gehixenak eukien, guk ganau bi bakarrik eukitten gauen. Baiña etxerako, ez dakitzu?, etxerako.
- Etxerako?
- Eta Andra Maixetan urteten gauen korroera ta, "Tia Petra!, tia Petra!" Danak hantxe holan, ez dakitzu? "Badatoz, badatoz", da jentia ba, "Ebe!, badatoz!", eta Eibartik kuadrillia. (Argazkiak ikusiz). Hori Andra Maixetan atarata dau, e. Hauxe zan Eibarresa (...). Geuk pe geuriek eitten gauen.
- Bai, ikusten dot.
- Guk ez gauen in dirurik baiña ondo pasetan gauen. Oin baiño hobetuau
- Bai?
- Neuretako bai.
- Ze ba?
- Oinguek gabez ibiltten die eta gu egunez. Oinguek xaguxarrak letxe dabitx hor.
- Otalazelai esan dostazu dagola pantanuan onduan. Pantanua noiz ein zebeñ?
- Semea: Hoge bat urte edo hola?
- Gehixao eukiko dau.
- Semea: hogeta hamar? Hogeta bost, hogeta hamar, hola.
- Ordurako zu ya ama izanda ta guzti.
- Bai, bai.
- Lehenao sekiak eta egoten ziran? Ur barik eta egoten ziñan?
- Ur barik? Lehenau bai, lehenau-lehenau amanien, neu neskatiillie nintzenien orduan erre kara joaten zien jabonaduria hori eitteko, baiña ya nik ura (...)
- Erropia garbitzeko eta erre kara?
- Bai. Etxien igual garbittu batzuk iñ da gero errekan han aklaretako. Jentie asko hor errekan.
- Labaderuak?
- Semea: Ez, labaderua ez. Hortxe, hementxe bertan, elixa ostian. Ez euen labaderoik beste herri batzutan (moduan).
- Hemen ez euen labaderoik, hemen erre kara. Ezkailuak eta hantxe ta. Oin errekan paittak eta bakarrik dabitx. Eta len paittaiketa ikusi bez errekan.

8. Urtegi, zubi eta bainu etxe

- **Erref:** ARE-041/009
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:21:35. **Bukatu:** 00:23:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Urtegia egitea garrantzitsua izan zen Pilarrentzako. Herriko zubi batetik amuarrainak harrapatzen zituzten.

Transkripzioa

- Orduan inportantia izan zan eittia pantanua?
- Bai, bai, ni neuretako bai. Orduan be batzuk esaten auen, eztakitzu?, egon

zien kontra ta bai eta bestiek be bai, baiña ni neuretako bai. Behintzat ura bauku.

-Herriko jentia egin zeban edo?

-Ez.

-Kanpokuak?

Semea: Egon zien, baiña kanpokuak, enpresa kanpokua ta injeneruak eta kanpokuak. Hemengo batzuk egon zien ba parua egon moruen han lanien baiña ez jente asko.

-Errekak pasatzeko zubixak bazeuazen len?

-Hemen? Hemen zubixa ederra euen, zubixa, han zubi bat. Han zubixan amorrañak pesketan-da, harrapetan-da ibiltten zien.

-Orduan bazeuan zubixa.

-Hor dau zubi bat, ointxe be badau hori zubixa.

-Baiña oin gehixao dao, ez. Gero zubi berri bat edo ein zebe?

-Arreglau ein euen hori. (...). Gure denporan hau palaziui hor dauena, hor Kaja Laborala ero, hori euen, da horrek aukien etxe bat zainketan dauendako ta. Eta ha auen errekan, erreka-errekan ha aukien.

9. Bainuetxe ospetsua Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-041/010
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:23:23. **Bukatu:** 00:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Bainuetxea egon zen Aretxabaletan, uratsa zuena. Larruazaleko pikorrak sendatzeko ona omen da ur hori. Kanpoko jende asko etortzen zen bainuetxera. San Lorentzo jaia, bainuetxera etortzen ziren udatiarrentzako jarri omen zuten. Madrildik etorritako udatiarrak jarri omen zioten herriko auzo bateri "Portasol" izena. Oillarixako ostatua zegoen bainuetxera etortzen zirenentzako. Moja Agustindarrak daude orain bainuetxe zaharrean. Inguruko beste herri batzuetan ere baziren orduan urats bainuetxeak.

Transkripzioa

-Bainuetxiak zeuazen hemen, ez?

-Baiñuetxiak, bai.

-Errekan?

-Baiñuetxia egon zan hor goixen baiñuetxia. Uratsa. Uratsa.

Gizona: Uretsa badakizu zer dan? Agua sulfurosa.

-Useñ haundixa botaten dau, da haxe egon zan. Eta harek garbiketan auen (azala).

-Kanpoko jentia etortzen zan, ez?

-Gure amak Eibartik be ekarten auen, Meltxora ta bere lobak eta granuak eta eukien horako. Han egoten zan holako untura bat botaten dauena berak, urak. Eta ha emun da hori.

-Usaiña txarra zan, ez?

-Txarra usaiña, bai, oso txarra usaiña. Baiña... Ha esaten euen ona zala erateko ta hori itteko.

-Erateko be bai?

-Baitta. Ta jentia egoten zan, Madrilguak eta asko etorten zien

beraniantiak.

-Eta hemen beraneatzen zeben?

-Hemen egoten zien harek. San Lorentzuak, haretzek beranieantiek ifiñi auen fiestia, San Lorenzo. Zien madrileñuak.

Semea: Dago auzo bat deiketan utsen mundu guztiak "Puerta Sol".

-Oin be bai. Noraiño joan zara ta Puerta Soleraiño. Eurak ifiñi auen, madrileñuak egoten zien-da hantxe.

-Ze egoten zien, etxietan, hotela edo?

-Auen balnearixua eta gero beste bat auen fonda bat. (...). Fondan be bai, egoten zien. Oillarixa deiketan otsen, Oillarixakua.

Semea: Hamen ostien monja dauzena, hau izen zan balnearixo bat.

-Hori izan zan inportantiena, mojak hor dauzena, Agustinak.

-Monjak?

-Mojak dauz oiñ, dauke monjak agustinak etxia, eta hori izan zan balnearixo oso inportantia.

-Monjena zan lehen be bai?

-Ez, gero. Ia jentia hasi zanian gutxiketan, gutxiketan. Jente asko oin..., bakitzu zenbat balnearixo dauzen. Len ez auen, hau inportantie zan.

-Nor baitena zan hori? Pagau ein bihar zan edo?

-Bai, bai, bai. (...) Len dana pagetakua, aberatsendako zan. Pobriak, pues...

-Gehixao kanpokuendako?

-Kanpokuendako. Madrileñuak asko eta princesa bat ero hementxe hil zan.

Semea: Hementxe hil zan da orduantxe hasi zan bajaketan.

-Hil egin zan?

-Bueno, nik entzuten nauen neure amai tta aittai tta txarto ekarri auela, hiltteko moduan ekarri auela hona eta gero hil zan. Eztakitzu?

Semea: Canovas be, Canovas be hill euen ba. Hor bazan balnearixua, uretsan balnearixua...

-Santa Agedakua.

Semea: berdin-berdiña zan. Euen Santa Agedan, Aramaixon, Atxabaletan, Eskoritzan, balnearixo pillat bat. Eta gero fan zien ba...

10. Ezkontza egunean ogi zuria

- **Erref:** ARE-041/011
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:30:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Herrian badago oraindik urats iturri bat, baina hango ura ez omen da lehengoaren modukoa. Pilar ezkondu eta gero kendu zuten bainuetxea. Dendari batekin ezkondu zen. Ezkontza egunerako, okin lagun batek nahikoa ogi zuri eman zieten; errazionamenduko ogi-beltz garaian. Otordu bikaina izan zuten.</p>

Transkripzioa

-Ta hemen hor dau itturritxo bat horrena, uratsena; baiña ezta lehengo moruko hori botaten. Uratsa ezta lehengo morukua.

-Semea: Beste itturri bat be badao goixan.

-Eta princesa hori etorri zanian noiz, más o menos...

-Ez, ez, nik ez nauen /enauen/ ezautu princesaik.

-Baiñuetxiak noiz hasi ziran kentzen?
 -Baiñuetxiak kendu?
 -Semea: Ama jaixo baiño lehenao.
 -Ez, kendu ez.
 -Semea: Kendu ez, baiña berutza bai. Kendu eingo zan, nik Fernando ta ezauketan neuen. Ta Tere ta han egon zienak eta hori. Ni ezkontuta gero kendu auen. Lehenengo egon zien batzuk, gero egon zien beste batzuk administraziño eta... Baiña zan oso politta. Ni han neskatillakotia joan eta ikusten, eztakitzu? Oso balnearixo politta.
 -Zenbat urtekin ezkondu ziñan?
 -Ni hogeta bostegaz.
 -Eta ezkontzak zelakuak izaten ziren?
 -Orduen? Ezkontzia? Ez dakitzue /eztakitzue/ zelako ederra izen zan niria! Klaro, orduen ez auen oingo moruen erregaluak eta gauzak eta emuten eta holan hori ez zan. Baiña pasau ondo, oingo baiño hobeto. Oin diruai beira dauz joateko estranjerora ta, zenbat emuten dotsazun. Orduan ez euen [xemeirik]. Eta gu gitzen, gerra ostekua izan zan txarra, ez auen ezebe, baiña nire gizonak euen dendia, eta hari panaderixako batek emun otson ogixa zurixa indda, ta orduen bal-baltza jaten gauen, eta auena gutxi, razionamentuen. Nahikua ogi emun oskun. Eta gero ekarri auen garrafoikara ardau, koñak eta dana, baiña ein gauen taberna bat zerrau zana, baiña neure amak eta horrek, amen lagun batek, beziña batek bazkaixe ifiñi oskun. Egon gintzen asko bazkaitten. Eta ba ederto danok, hango hori ta bestie. Fíjate zelako ederto egongo gintzen, tio bat hiru egunien ez zala fan bere etxera.
 -Hemen geratu zan?
 -Hemen geratu zan. Eta beste koñato bat etxie ezin topau. Klaro, orduen gose-denporia zan ta, ez auen ezer, ta etorri zien inguruko primok eta traste guztiok ume danakin. Ume mordua euki gauen.
 -Gizona: Ogi zurixa jaten. Ardaua ona ta pattarra.
 -Ogi zurixa ta. Jatia zan orduen, ez zan jaten ta. Baiña pasau guk! Guk ezteixak ein gauen, baiña zelako eztaixak ein gauen! Ondo. Gure bodie hori izan zan, zegatik euki gauen ardaua nahikue, koñak nahikua euki gauen, ogixa zurixa. Eta gero amak eta ifinita bazkaixa hango oillaskuak; eta guk..., ondo. Oso boda ona ein gauen.

11. Gerra denborako kontuak

- **Erref:** ARE-041/013
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:30:43. **Bukatu:** 00:33:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika » Gerra zibila \(1936-1939\)](#)

Laburpena:

<p>Arropa beltz eta apain-orraziarekin ezkondu zen Pilar. Udaletxe zaharrean kartzela egon zen. Gerra denboran herritarren arteko ezinikusiak nabarmendu ziren Pilarren iritziz. Bere etxean pairatu zuen egoera hori.</p>

Transkripzioa

-Geuk pe geuriek eitten gauen.
 -Erropa beltzakin ezkondu ziñen?
 -Erropak eiñ ostien aiztiak eta batek.
 -Orduan erropa illunak eruaten ziren?

-Holako peinetia ta horrek. Zela bezinuek gitzen botikakuakin; ta harek peinetia ta, batian errosaixua ta bestien horrek ifiñi ustien eta (ezkondu nintzen).

-Gerra ostian ezkondu ziñen?

-Bai.

-Eta kartzelia gerra ostian egin zan?

-(...)

Semea: ha aurretik ein zan.

-Kartzelia egon zan hor, aiuntamentu zarrian. Zarra esaten dutsen hantxe.

Semea: hamen hiru aiuntamentu ezautu dou.

-Pasau gauen geuriek eta lau ta. Batien hau ta bestien bestia ta.

-Kartzelia ze egin zan, gerra garaixan?

-Gerria izan zan, baiña gerra txarra izen zan; bakizu zer izen zan? Ikusieziñe. Herrixetako ikusieziñak eztakitzu ze izaten den? Más que política, horixe.

-Zelan?

-Eztozu entendiduten?

-Ez.

-Hara! Politikia bada, eztakitzu, bat hangua dala, bestie bestie dala, baiña orduen egoten da ikusieziña, batian harek etxia eztakit zer, ha bestiak eztakit zer. Horixe izan zan. Nik baakitt gure amak eta aittak pasau auenak.

-Etxia kendu edo egin zotsen?

-Ez, ez.

Semea: baiña aittajauna bialdu ein euen aiuntamentutik, ez euen kobretan, elektrizistia zan. Ez auen kobretan. Batzuk, e, "por nacionalista". Gure amak erderaz ez zakixen. Baiña horrenbeste kuartelera joan bihar izeten zan, hantxe ikasi auen.

-Kuartelian ikasi?

-Kuartelera atzera eta aurrera, kuartelera joan biha zan. Bakitzu zegatik? Batien Francogatik hau esan dauela enterau zala, bestien bestie esan dauela, eta joaten zien beziñak eta esaten gauzak; eta gure amak hango guardazobil bateri, ezauketan auen ondo, hango kabua, eta hari esan otson: "Bueno, ba ezpostazu esaten zeñ dan, enoia hemendik urteten". Eta azkenien esan otson: "Ba fulana da. Eta zu egoten za bere lagun bategaz, Mariaz, eta zuok bixok ez zare egon bihar". Bat egon biha zan banku baten eta bestia bestian. Banku bat gure etxe parian banku bat oso inportantia zan, danak andra guztiak egoten zien da bankuan-da. Eta gero egun bat ero bakarrik pasau auen, baiña bigarren aldiz, bigarren egunerako ia juntau zien

12. Guardia Zibilak gerra aurretik

- **Erref:** ARE-041/014
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:33:46. **Bukatu:** 00:36:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Pilar jaio zenean Guardia Zibilen kuartela Eskoriatzan zegoen. Geroago eraiki zuten Aretxabaletakoa, Errepublika denboran. Orduko Guardia Zibilak ezagunak eta gizon onak ziren. Pilarika egunean denak joaten ziren Guardia Zibilen dantzara.

Transkripzioa

- Jende asko egon zan kartzela horretan? Haundixa zan?
- Semea: Ez. Hor kartzelan bat ero.
- Gutxi.
- Gizona: Gero hanka eñ auen da. Bat ero bi. Zan habitaziño txiki bat.
- Oso txikiña. Han sartzen auen, eztakitzu, ibiltzen zien e...
- Semea: Baiña ez zan holan e, kartzela bat, ze esangotsut nik, hamen Donostian euana. Keba. Kartzela bat, han egongo zien hiru ero lau bat sartuta. Baiña keba! Hamendik eruan eitten zittuen. Jentia Donostira ero.
- Zure amak ikasi zeban erderaz kuartelera joaten?
- Ez zakixen. Aittak bai baiña berak ez.
- Guardia Zibilletara?
- Guarda Zobillera joaten zan, esaten otsen: "Usté, Petra, ha dicho esto, esto, lo otro!", erderaz esaten otsen da ba klaro. Eta ba han ibilli zan. Eta gero behin batek esan orduantxe: "Eztot urtengo hamendik ezpostazu esaten zeñ dan".
- Zeu jaixo ziñanian kuartela bazeuan ya?
- Ez, ez auen, Eskoritzan auen. Gero in zan hemen. Republika denporan in zan. Eskoitzan bai baiña hemen ez.
- Eta Eskoriatzakuak hona etortzen ziran Guardia Zibillak?
- Bai, ibiltzen zian atzera-aurrera baiña gutxiao. Lelengo lehenao guardozobillak etorri zienak eta ba ezaunak zien. Ez zien oingo moduan billurketakuak. Persona onak zien. Guk dendia euki gauen eta danak etorten zien dendara eta ezauketan gintzen eta danak, ezta?
- Semea: lelengo hamen egon zan Eskoriatzan kuartela. Gero ekarri auen Atxabaletara, porke Atxabaletan obrero asko auela ta igual erreboluziñue ta holako kontueaittik ekarri zeuen hona. Urtiak, republika denporan. Ondiokan eskudua...
- Eta orduan guardazibillak oiñez ibiltzen ziran, kotxia bazeken? Edo zaldixan edo.
- Ezebez. Zaldirik eta ezebez ez eukien.
- Semea: Oiñez parejia gora ta bera.
- Baiña ez zien egon holan bat esateko moruan, eztakitzu? Egongo zan igual, baiña persona onak egon zien orduan, gure denporan. Pentsaizu, Pilarika Egunian-da egoten zien hori, dantzia ifintten euen. Dantzan egoten gintzen, dantzan itte arren kuartelera. Hau zala, bestie zala.

13. Guardia Zibilekin gertatutakoa

- **Erref:** ARE-041/015
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:36:38. **Bukatu:** 00:39:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Pilarrek eta ahizpak, gerra ostean Guardia Zibilekin izandako gertakizuna. Garai hartan errotak eta irina kontrolpean zituzten. Baba beltz eta patatak estraperloan ekartzen ziren Arabatik.

Transkripzioa

- Gerra denporan be gu ibilli gintzen, gure amari panadero bat, panaderixiako bat Mondrauen dauena, Arrasate ero zan panaderixia, eta

haregaz zan oso lagun haundixa ama. Ta harek emuten oskun uruna. Ta gure amak itten auen basarriko ogixa. Juaten zan, beste aldameneragokuek eukien labie ta. Eta egun baten aitzie ta bixok joan gintzen, neskakillakotia gu, eta joan gintzen ogittan, urunetan. Ilunkaran joan biha gintzen, bestela, ezta kitzu? Ikusi eitten gauen jentia, uruna ta (...); eta ikusi gauen guardazobillak: "Pakita, Pilar!, esperar!, que ya os voy a llevar yo el paquete". Guk, "ai ama, ointxe, ointxe, enterauko da, zabalduko dosku eta uruna dala. Oin guk in bihou ta. No, no. Ez, eztauela itxiko, gu ezgoiaz emuten, ez goiaz emuten". "Bueno, bueno -eurak-. Geu, mutil bi hemen, guardazobillak mutil bi, eta neska bixok kargiaz? Hori ezin leike". Eta aillegau gintzenian -hor Santutxo dau entradan ermitta bat-, eta esan oskun: "ointxe errebisau bihar dotsugu zer dakargun" Gure sustua! "Adios!, ointxe harrapauko gaue". Esaten oskun: "Zer pentsatzen dozue, gu ezkarela akordau zer doiazuen zuek?"

-Orduan ezin zan eraman iriña ala?

-Ez, keba!, kontrabandua zan. Orduan Bittorixatik eta be ekarten auen hori tta. Hor ibiltten zien ikusten.

Semea: prezinttauta egoten zien.

-Errotak.

-Zer dakatzun da, dana erakutsi bihar izaten zauen. Bueno, txarto ibiltten zan. Hemendik oiñez joaten zien horra Arabara eta patatia gabez-da ekarri tta. Baba baltza ta. Ez auen ezer da, jateko ta, gabetan da. Ta orduan zan kontrabandua. Gu holaxe pasauta gauz.

-Eta harrapau ezkerro?

-Harrapau ezkerro, ene!, igual multia o, kartzelia o, holaxe. Kartzelia ez baiña multia bai.

14. Dendan lanean, errazionamendu garaian

- **Erref:** ARE-041/016
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:39:48. **Bukatu:** 00:42:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Baserritarrek zirenez, etxean ganaduak eta soroak zituztela, ez zuten goserik pasatu. Senarra izango zenak taberna eta "ultramarinos" denda zuen. Pilarrek ere urteetan jardun zuen etxeko dendan lanean. Errazionamendu-liburuxkarekin etortzen ziren bezeroak gerra ostean.</p>

Transkripzioa

-Gure denporia hori izan zan. Bakitzu, gaiñera, zenbat urte? Berrogei urte ein gauen holan da. (...) Franco.

-Eta zuk gosia ez zenduan pasau, ez?

-Guk ez. Guk euki gauen, eztotsut esaten, ase be ez gitzen itten, e, beti orduen gosia zelan zan ba, oiñ krisisaz moruen, danak krisis, krisis, orduen gosia zan da ba hori. Baiña guk zelan gaukun ganauak pe bai, solua be bai, geuretako laiñ nahikua gaukun.

-Saldu ez?

-Saldu keba! Saldu, zazpi aizta, harek pe umiekin-da hori, ta harei emuten

batian esnia ta bestiei... Kuartelera be joaten gintzen esnia erueten, pentsaizu. Hango kuarteleko batek umia euki euela ta amaana etorri zan ez eukela titixa ta eztakit zer. Ta hari be esnia emoten.

-Aittak dendia zeukan, ez?

-Ez, nere gizonak, honen aittak.

-Eta dendan ze saltzen zan?

-Harek auken dendia eta tabernia. Aukien harek.

Semea: ze saldu? Dana.

-Dana batera.

-Lenauko estilua, eztakitzu? Dendia, tabernia ta.

-Toki berdiñean?

-Ez, ez. Dendia leku baten eta hori bestien euki auen.

-Eta dendan ze zeuken, janarixa ta holan?

-Janarixa, ultramarinos. Neu be zenbat urtera arte, Pedro Mari, dendia euki gauen? Aitta Copreci hasi zanien (kendu gauen).

Semea: Copreci hasi zanian? Beranduao be bai euki gauen. Coprecin hasi tta bost bat urte ero xei bat urte euki gauen.

-Nere gizona han sartu zan. Coprecin gero sartu zan.

Semea: Copreci da fabrika bat. Eta gero dendia erueten auen nire amak eta aitzak eta.

-Aitzak ez, lobak.

-Zeu be dendan egoten ziñan?

-Dendan? Bai, gero bai. Bihako gura beneuen zerbait. Ni egon nintzenerako ya ondiokan razionamentue auen ezkondu nintzenien. Etorten zien horrek eitten libretiaz: zuri toketan jatzu eztakit zenbat, zuri be bai. Pentsaizu, gobernadore bateri "100 gramos" ipiñi utsien. Zeatik beti periodikuetan ero anunzietan auen batek zenbat daukon. Azukarra igual ehun gramo, bestien ehun gramo. Eta ehun gramoaz ze in bihoku ba? Hilebetian-da, razionamentua.

15. San Blasetako bedekinkazioak

- **Erref:** ARE-041/018
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:42:57. **Bukatu:** 00:46:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Beroa, Lezama Laminazioa, Iturbe eta beste tailer batzuk zeuden orduan. Geroago asko ugaritu ziren tailerrok. San Blasetan ez zen opilik egiten Aretxabaletan. Pikua eta okaranpasa, gatza eta kafea, eta ganaduentzako artaburuak eramaten ziren bedekinkatzera San Blaseko ermitara.

Transkripzioa

-Eta taillerrak eta noiz hasi ziren ipintzen, beranduago?

Semea: Taillerrak? Hamen baeuen Valle de Leniz.

-Beroa ta gero laminaziñua.

-Iturbe?

Semea: Iturbe.

-Iturbe ze zan, haundixa?

-Iturbe ez, Iturbe eta Valle Leniz igualak. Txikiñak. Horrek zien familixa, sozio batzuk. Haundixena izango zan Lezamakua?

Semea: Lezama ta Beroa. Lezama zan laminaziñue. Eta gero honek die zerrajerak: Iturbe, Azbe, Valle de Leniz...

-Askok ifiñi auen taillerra.
 Semea: Zerrajerako taillerrak. Gero hasi zan Copreci. Eta Coprecik hartu dau... Copreci ta koperatibak.
 -Lehen Otalazelaiko jaixa kontau dostazu ta. San Blasak, hemen be opillak eitten dira, ezta?
 -Hori san Blaskua, Eibarkua, jole! Hemen opilla ez zan eitten. Hemen pikuak eta. Baiña gure tiok urtero-urtero bi holakotxiak bialketan zoskun.
 Semea: hemen ezta itten opilla.
 -Hemen ezta itten opil hori?
 -Ez, ez. hemen erueten zan pikuak, okaran pasak eta horreik danok. Eta gero gatza, kafia be apurtxo bat...
 -Hori dana bedeinkatzera?
 -Bedeinkaketato erueten gauen. Eta horreik artaburuak be bai guk ganauendako erueten gauen. Horrek danok.
 -Ermitta baten.
 -Bai, ermitta baten. Oso politta da, san Blas.
 -Txikixa da?
 -Txikitxua baiña bastante barriztuta, barriztu eiñ auen, baiña oso lenauko estiloko horrei dau ifinita.
 -Eta jende asko juaten zan?
 -Bai, asko.
 -Eta kabitzen da jendia hor?
 -Ez, ez, kanpuan itten daue. Barruan geraketan diezenak eta gero kanpuan, umiak eta kanpuan itten daue. Oso politta da. San Blasak. Pozik joaten gintzen gu, orduantxe san Blasetan jaten gauela, ta gero Eibarko tiak bialketan oskun.
 -Bestiak ez euken orduan opilla.
 -Ai ama!, san Blasak oso gustora.
 Semea: Ez, hemen opilla ezta...
 -San Blasak hor bai, zuk pe jangozu.
 -Bai.
 -Semea: amak jakingo dau.
 -Ja-ja, eibartarrak danak dakixe eitten ondo san blas opilloi. Hemen ez, hemen eztaue ikesi.
 Semea: batzuk itten daue baiña ezta...
 -Bizperan joan, behin holaxe bizperan eztakit zetara joan gitzen gu, eta use(in) bat, anis usein bat Eibar guztien! Bueno! Eibar guztien anisa.

16. Aretxabaletako denda zaharrak

- **Erref:** ARE-041/020
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:46:53. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Lehengo denden izenak esaten digu Pilarrek. Herri azokarik ez zegoen orduan. Baserritarrek Aretxabaletako dendetan eta Arrasateko ferian saltzen zituzten etxean egindako gauzak.

Transkripzioa

-Zeuek egiten zenduen erosketia?
-Pikuek eta okaran-pasak eta, horrek erueten gauen. Horreik erositta.
-Nun erosten zenduazen? Merkatu plazan ero?
-Keba! Hemen ez auen merkatu plazaik eta. Denda batzuk: Mantxuen, Romalduena, Kukuena..., horretxek. Gero gerora ifiñi auen "Dendabarri" deiketan guntsena.
-Eta hemengo baserritarrek euren gauzak nun saltzen zittuen?
Semea: Mondrauen. Ferixie Mondrauen. Gero eitten zeuena hamengo dendarixei, hamengo dendarixei saldu ta holako... Baiña lenau faten zien Mondrauera.

17. "Mantxua", Pilarren aitajaun tratantea

- **Erref:** ARE-041/022
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:50:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Garai hartan kale-baserri asko zeuden Aretxabaletan. Taberna bat zegoen, bere senarraren familiarena. Aitajauna, Mantxua ezizenez eta izatez, tratantea zen. Araban erositako produktuak ekartzen zituzten mandoan, muga arielak ordainduta. Mandoei ferrak atzekoz aurrera jartzen zieten, mikeleteak engainatzeko.

Transkripzioa

-Hemen lehenao danak baserrixak?
-Kale-baserrixak asko egon zien.
-Eta tabernak eta ze zeuazen, baserrixen azpitan be bai?
-Tabernia bat behien, Kalebarrenien, Kalebarrena deiketan guntson. Han auken nire gizonen aittak eta. Aittajauna izan zan un eso. Zelan zan? Karro bategaz ibiltten zan, tratante bat. Hemendik Bittorixara joaten zan. Pentsaizu. Manduakin. Eta orduan pagau ein biha zauen handik.
Semea: Arbitrios.
-Bergara, horra faten bazara, Bittoixara.
Semea: Arabako produkto batzuk hona ekarri ezker, zuk Arbitriosen pagau ein bihar zauen honenbesteko bat.
-Pagau ein bihar. Eta harek, oso argixa zan, eta harek bakitzu ze eiñ auen? Klaro, bere atzien ibiltten zien honek mikeletiak eta. Mikeletie eztakitzu zer dan?
-Ez.
-Ba oiñ ertzaiña.
Semea: Ertzaiñan orde zuten zien fronteretan, Gipuzkoa, Bizkaia, hori, mikeletiak. Hamen Gipuzkuan mikeletiak.
-"Mantxua joan da gorutz". Mantxua zan deiketan otsiena, mankua zan da honen bisabuelua. Eta harek perrak ifintten otsen horri manduai bestekaldera. Da ba a ez. "Ha gorutz joan da" eta bestia berutze etorri.

18. Sei urterekin eskolara

- **Erref:** ARE-041/024
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:51:50. **Bukatu:** 00:52:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Sei urterekin hasi zen eskolan. Aretxabaletako ume guztiak egoten ziren senar-emazte ziren maisu-maistrarekin.

Transkripzioa

-Eskolara joan zifan zu txikitan?
-Eskolara bai.
-Hemen herrixan?
-Hementxe herrixan. Hemen zazpi urte arte ez zan sartzen, e, eskolara. Zazpi urte ero euki bihe zauen eskolara joateko. Eta hemen ni sartu nauen xei urtegaz gure amak ume asko eukelako. Maistruek penia hartu eta hori. Eta oso maistro onak zien, bi zien, andra-gizonak, baiña Atxabaletako ume danak berakin.
-Euskeraz eskolia ala erderaz?
-Orduan erderaz.

19. Gerra denboran eskolarik ez

- **Erref:** ARE-041/026
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:52:56. **Bukatu:** 00:55:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra garaian, bonbardaketak zirela-eta, ezin izan zuten eskolara joan. Eskoriatzatik etorritako moja batzuek ematen zuten eskola. Irakasle euskaldun gutxi egon ziren, eta eskola beti erdaraz izaten zen. Dotrina ikastera ere joaten ziren. Hijas de María kongregazioan egon zenean, goizeko sei eta erdietan ematen zieten meza. Elizako kanpai hotsekin esnatzen ziren.</p>

Transkripzioa

-Eta ze ziran monjak edo eskola nazionalak?
-Monjak, monjak emun auen gerra denporan ya hori. Zegatik gu eztakit zela ikasi gauen. Zegatik gehixenetan joaten gitzen, batien bonbardeue dala, bestien eztakit zer dala, eta ez gauen eukitten eskolaik pe. Baiña gero etorri zien monjak Esteibartik, Eskoriatzatik batzuk hona emutera. Hareik pe egon zien. Nik bestela ba maistrak eta onak euki gauen.
-Euskeraz bazekixen? Klasiak erderaz baiña eurak erdaldunak ziran?
-Erderaz, erderaz. Eneee! Ez gakigun erderaz ezer baiña.
Semea: maistrak euskeraz baekixien eurak?
-Doña Franziskak eta don Santiagok pai, baiña beste batzuk egon zien ez

zakixienak.

-Eta zuk erderaz ez zenekien eskolara joan arte, ez?

-Ez. Guk erderaz eskolan zerbaitt ikasi gauen, sí tta no ta hori. Hantxe ikasi gauen zerbaitt. Nik eztakitt erderaz ondo oin be, e. Asi ke...

-Eta errezatzen zenduten eskolan edo?

-Errezau? Bai errezetan gauen. Gero dotriñara be joaten gintzen, eta hori danok in gauen.

-Mezetara bai beti?

-Mezetara betik. Eta goixien igual xetterdietetan ifintten oskuen mezia. Hijas de Mariari tta seitterdietetan.

-Goizeko seitterdietetan?

-Seitterdietetan joaten gintzen. Baiña gero seitterdietetatik zortzirak ero beratziak, zortzitterdiak arte etxe..., aiuntamentuen han kantoien hamar bat neska barriketa baten, kontuak kontetan, lekaixo baten, barre baten eta gero etxera joaten gintzen.

-Eta esnatzeko despertadoria eta?

-Despertadoreik ez auen.

-Eta zelan hain goiz esnatzeko?

Semea: Kanpaiakin.

-Kanpaia jotzen zeuben lenao?

-Bai, kanpaia jotzen zeuen, ti, ta, ta. Ointxe be badauz Atxabaletan kanpaia jotzen dauenak.

-Kanpaiakin esnatzen ziñan?

-Kanpaiakin. Erlojua ta orduan, e; holakon bat ero egoten bazan, baiña bat bez, erlojuik eta ez auen orduan. Erlojua ba holakon bat etxian, baiña igual egoten zan salan ero ifinita ero, eztakitzu? Aittak ero deiketan oskun eta ala, "jaiki!" tta ala!

20. Aguazilen beldurrez

- **Erref:** ARE-041/027
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:55:49. **Bukatu:** 00:56:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Gaztetan kalean gauez ibiltzen baziren, aguazilek gurasoei esaten zieten.

Transkripzioa

-Argirik egoten zan orduan kalia?

-Argixa bai ifinita bai, baiña oingo moruko argirik ez. Ezta pentsau bez.

-Kalia gabaz ibiltzeko ta zelan egoten zan?

-Gabez eta gaiñera aguazil bategaz holaxe ibilli gintzen, e, herri guztia.

-Ze ba?

-Ba zainketan. Eta gero esaten bagotson: "Zu, zure alabie ero zure semie ero hori, eta etxien osteria hartzen gauen..."

-Semea: Egurra. Bi paliza.

-Palizia ez, jo ez gauen itten, baiña astinddu bat bai emuten oskun. Oiñ zortzi aguazil igual eta kasoik pez umiei eztotse itten. Eta orduen aguazill bateaz takarraran jota, badator aguazilla", bestia..., eta takarraran danok ibiltten gintzen. Diferentie.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com